

AZPIEGITURAK. Jaurlaritzak 8 milioi euroko inbertsinoa egin dau, bost egitasmo bultzatzeko



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Azkenengo hiru hileotan, obrak egin dituen bitartean, Atxuriko tren geltokia zarratuta egon da bidaiarientzat.

Atxuriko tren geltokia hilaren 16an zabalduko deustiee barriro bidaiariei

Abuztuko euriteek astebetez atzeratu ditue azpiegitura hori tranbiari egokitzeko beharrak

Irigo Bilbao

Bolueta eta Atxuri arteko trenbidea hilaren 16an zabalduko dabe barriro. Atxuriko geltokian tranbiarentzako azpiegitura

ipini, trenbidea zati bat barritu eta beste egokitu, eta Mirafloresko tunela zabaltzeko hiru hile behar izan ditu Euskotren konpainiak, eta horren ondorioz, tarte hori zarratuta egon da denpora horretan.

Hasiera bateko asmoa eten-dako zerbitzua datorren astelehenean, hilaren 9an, emoten hastea zan, baina abuztuan izan diran euriteek dana astebete atzeratzera behartu ditu garraio konpainiako arduradunak. Euskotren konpainiak, dana dala, hilaren 15era arte eutsiko deustso metroagaz berbatutako hitzarmenari. Jakina danez, trenbidea barritzen hasi ziranetik, Bolueta-raino joateko erabili daben txartela Bilboko edozein metro geltokiraino joateko ba-

AUKEREA

Bolueta-raino joateko erabili daben txartelak Bilboko edozein metro geltokiraino joateko balio izan deustso bidaiariei

lio izan deustie. Metro Bilbao konpainiagaz berba egin dabe tren zerbitzuko arduradunek aukera hori astebetez luzatzeko, trena Atxuriraino ailegetan dala bermatu arte.

8 milioi euroko inbertsinoa

Euskotren konpainiak 8 milioi euroko inbertsinoa egin dau Atxuriko tren geltokia eta zati horretako burnibidea barritzeko. Obrak EuskoTren XXI plan-gitzearen barruan sartuta dago, danetara 1.000 milioi euroko aurrekontua daukan proiektuan, hain zuzen. Eragozpenak ahalik eta txikiak izateko, behar guztiak aldi berean egin ditue, nahiz eta ondo berezitateko bost jardura izan diran eginda-koak. Geltokiko atariaren barrikuntzea izan da lanik nabarmenena, baina ez da bakarra izan.

Izan be, eraikina babestuta-koen zerrendan egoanez, egiturearen zatirik handiena egoan moduan itzi dabe. Barruko al-

deari, halandabe, giro gaurko-tuagoa emon gura izan deustie. Izan be, tranbia abenduaren 20an ibiltzen hastekoa da kaleetan, eta ordurako geltokia egokitzeko preminea egoan. Bide batez, sarrerea be konpondu dabe erabiltzaileei sarbidea errazteko.

Geltokia barritatzearaz gane-ra, beste lau proiektu egin ditue beharginek, hiru hileotan: ari-nago Bolueta eta Ariz arteko ibilbidea barritu eben lez, orain Bolueta-tik Atxuriraino doan zatian burnibidea aldatu dabe, batetik; Mirafloresko tunelaren zuloa be handitu egin dabe, bes-tetik, hortik pasetan diran tren-ek arinago joateko aukerea eukiteko; Atxurin trenbide zabaltza barria ipini dabe tranbiari lekua izteko; eta amaitzeko, geltokiaren albo baten tranbia-arentzako tailerrak eta garbitu eta gordetokiekua egin dabe.

Garraio eta Herri Lan Saileko arduradunak buru-hauste handiak izan ditue proiektu horre-gaz. Hasi aurretik, azkenengo ordura arte arduratuta egon zi-ran hormigoiaren arloko greba zala eta, istilu horrek kalteak eragin zitualako hainbat herri lanetan. Gerora, beharginak la-nean hasi ziranen, eguraldia izan da oztopo, abuztuan izan diran euriteek beharrak aste be-tez atzeratu egin dituelako.

BILBO

Udalak ikastaroak antolatu ditu, herritar guztiek ikasteko aukerea euki daien

Erredakzioa

Udalaren Kultura Sailak Tailerrak denontzat ize-neko ekimena antolatu dau, herritarrek hainbat arlotako ikasketak egite-ko aukerea euki daien. Besteak beste, eskultorea, keramikea, zura lantzea, marrazkia edo argazkila-ritzea tailerrak antolatu ditue. Irailaren 16tik 20ra bitartean zabalik egongo da izena emoteko epea.

Urriaren 28tik zemen-diaren 3ra bitarteko aste-an hasi, eta maiatzaren er-dialdera amaituko diran tailerrok udal barrutien egoitzetan egingo ditue. Ikasle izateko ipini daben baldintza bakarrak bilbo-tarra izan eta 18 urtetik gora izatea dira. Olio, au-kerelea eta marrazki tek-niketan hasita, eskultu-rea, keramikea, argazkila-ritzea eta bideoaren gane-ko oinarritzko ezagutzak jaso, eta altzariak barri-tzen ikasteko aukerea es-kainiko dabez.

KULTUREA

Bizkaiak euki eban lehenengo kronistearen lana aztertuko dabe Portugaleten

Erredakzioa

Portugaleteko historia ezagutzeko Santa Clara Kultur Etxean antolatzen dituen jardunaldietan Lope Garcia de Salazar zana-ren gane-ko bizitza azter-tuko dabe hilaren 19an eta 20an. Garcia de Salazar Bizkaiak izan eban lehe-nengo kronistea izan zan.

Santiago Perez Kultura Saileko zinegotziak jakin eragin dauenez, jardunal-diotan 1399 urtean jaio eta 1476an hil zan bizkai-tar ospetsu horren nondik norakoak aztertuko ditue, batez be Bizkaiko histo-rian euki eban garrantzia nabarmendu guran.

Jardunaldiotan izango diran ikertzaile eta irakas-leen artean, EHuko Jose Ramon Diaz de Durana eta Valladolideko Uniber-sidadeko Isabel del Val nabarmendu ditu.

CB CANAL BIZKAIA	
Bizkaiko Telebista	
IRAILA 06 OSTIRALA	
09:00	KONTZERTUA: "Ariel Rot" (2ª Parte)
09:30	LAS AVENTURAS DE SHIRLEY HOLMES:
10:00	LA COCINA DE LOCALIA
10:30	ESPAÑA PLATO A PLATO
11:00	DOCUMENTAL: "VETE ENTERANDOTE"
11:30	KONTZERTUA: "Homenaje a Pepe Risi" (2ª Parte)
12:00	TELENOVELA: CARITA PINTADA (episodio 116)
13:00	ELLA JARDÍN
13:30	CALIDAD DE VIDA
14:00	BIZKAIA GAUR 1ª EDICIÓN
14:30	PLANETA VERANO
15:00	NOTICIAS LOCALIA
15:30	SERIE: (Cap 61) "EL SEÑORIO DE LARREA"
16:00	HECHO POR ELLA
16:30	SERIE (Cap 62) "ENTRE DOS FUEGOS"
17:00	ELLA JARDÍN
17:30	TELENOVELA: (Cap 136) "CARITA DE ÁNGEL"
18:15	INTERIORES: "Un Siglo de Diseño"
18:45	TXIKIAREA
19:00	VIVIR RODANDO
19:30	MTV. CANAL MUSICAL
19:45	GAME OVER
20:00	LAS CHICAS DE ORO: "El Día de San Valentín"
20:30	BIZKAIA GAUR 2ª EDICIÓN
21:05	NOTICIAS LOCALIA
21:30	PLANETA VERANO
21:45	MAGACÍN: "TAQUICARDIA DE VERANO"
22:15	CINE: "El Cuervo"
00:00	CINE: "Una mujer bajo sospecha"
01:30	ARRAUN 2002
01:55	UN MAR DE REGATAS
02:20	PLANETA VERANO (R)
02:30	MTV. CANAL MUSICAL
05:00	AGENDA CANAL BIZKAIA

ESTETIKA ETA ILEAPINTZEA

CEM

- Ordutegi eta txanda malguak
- Ikasi lehen egunetik praktikatzu

☎ 94 423 66 38

Berastegi, 5 - 4. - 48001 BILBO
Abando Metroaren ondoan